

Euskal AEko biztanleria 16.622 pertsonatan hazi da 2016 eta 2021 artean


Gorakada 65 urte eta gehiagokoetan izan da, 33.000 pertsona gehiago izan baitira; 20 urtetik beherakoak, berriz, apur bat hazi dira (+749), eta lanean aritzeko adinean daudenak 17.000 gutxiago dira

2021eko urtarrilaren 1ean, 2.193.199 biztanle bizi ziren Euskal AEn, Eustatek prestatutako datuek erakusten dutenez. Horrek esan nahi du 2016an zenbatutakoak baino 16.622 pertsona gehiago daudela.

Zifra hori, 2020ko urtarrilaren 1ean erregistratu zena baino 6.512 pertsona gutxiagokoa da, eta, beraz, apurtu egin da 2016tik biztanle kopuruaren gorako joera.

2016 eta 2021 artean biztanleriak hiru lurraldeetan egin du gora, baina horien artean alde handia izan da. Gipuzkoak irabazi du biztanle gehien, 6.768, eta ondoren Arabak, 6.300. Bizkaiak, berriz, 3.554 biztanle gehiago ditu. Zenbaki absolutuetan Gipuzkoak Arabak baino igoera handiagoa izan badu ere, termino erlatiboetan igoera % 2,4koa izan da lurralde horretan, eta % 1,2koa Gipuzkoan.

Biztanleen piramideak. 1991 eta 2021



Iturriak: Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika, 1991 eta 2021.

Bost urte hauetan Bilbo izan da biztanleria galdu duen Euskal AEko hiriburu bakarra, 410 pertsona gutxiago, hain zuzen ere. Gasteizen izan da igoerarik handiena 4.963 pertsona gehiagorekin, eta Donostiak 1.430 biztanle gehiago ditu.

Bost urte hauetan eskualdeen arabera izandako bilakaerak erakusten du Arabako hiru eskualdek eta Bizkaiko eskualde batek % 3tik gorako hazkundea izan dutela: Arabako Mendialdeak (% 6,4), Añanak (% 5,5), Plentzia-Mungiak (% 4) eta Gorbeialdeak (% 3,1).

Bestalde, Plentzia-Mungiak ia 59.000 biztanle ditu, eta hiru udalerri % 5etik gorako igoera izan dute. Horien artean Urduliz nabarmentzen da (% 17,7), eta hurrengoak Gorliz (% 6,5) eta Bakio (% 5,9) dira. Lau eskualdetan egin du behera biztanleriak, nahiz eta kopuru absolutuetan eta erlatiboetan jaitsiera mugatua izan. Eskualde horiek, galera handienetik txikienera, hauek izan dira: Debagoiena (-% 0,24), Debabarrena (-% 0,14), Arabako Kantaurialdea (-% 0,12) eta Bilbo Handia (-% 0,07).

65 urte eta gehiagoko biztanleak Euskal AEko biztanleriaren ia laurdena dira

Euskal AEko biztanleriaren adinaren arabera banaketa aldatu egin da bost urte hauetan, piramidearen goiko muturrean pertsona gehiago baitaude.

65 urte eta gehiago dituztenak biztanleen % 23 dira, eta Espainian dagoen proportzioa 3 puntu baino gehiagotan gainditzen dute. Adin horretako biztanleria 2016an baino % 7 ugariagoa da, baina, talde horren barruan, nabarmentzekoa da 85 urte bete dituztenen kopurua % 15,3 hazi dela 2016tik. Azkenik, ehun urte eta gehiagoko biztanleria aintzat hartzen badugu, ikusten dugu % 20,1 hazi dela 2016tik.

Sexua kontuan hartuta, 65 urtetik gorako emakumeen proportzioa % 25,6koa da, eta gizonena, berriz, % 20,2koa. Aldeak mantendu egiten dira urte gehiagoko biztanleen artean; hala, Euskal AEko 85 urteko eta gehiagoko emakumeak guztizkoaren % 5,4 dira, eta gizonen kasuan, ehuneko % 2,7ra jaisten da.

Fokua eskualde mailan jarritz gero, Arabako Mendialdean dagoen 64 urtetik gorako pertsonen proportzio handia azpimarratu behar da, guztizkoaren % 26,2arekin; ehuneko altuena duen hurrengo eskualdea Markina-Ondarroa da (% 24,4) eta ondoren Arabako Kantaurialdea dator (% 23,4), Debagoienaren eta Bilbo Handiaren antzeko proportzioekin (% 24,1 bi kasuetan). Baliorik txikiak dituztenak Plentzia-Mungia (% 18) eta Gorbeialdea (% 19,4) dira.

Alde handia dago Euskal AEko udalerrietako biztanleen adinari dagokionez, eta, zehazkiago, 65 urte eta gehiago dituzten pertsonen ehunekoari dagokionez. Ehuneko txikienekoak Irura da, % 10,2arekin, eta Haranan ehuneko hori % 38,1ekoa da. Lehenengoaz gain, % 13 baino ehuneko txikiagoa duten beste sei udalerririk daude: Larraul, Astigarraga, Baliarrain, Iruña Oka, Alegria-Dulantzi eta Arakaldo.

Euskal AEn, 65 urteko eta gehiagoko 1,6 pertsona daude 16 urtetik beherako pertsona bakoitzeko, Espainia osoko 1,2ko ratioa gaindituta, baina oraindik Asturiasko Printzerrian ikusten den 2,2ko erlazioetik urrun.

Erlazio hori gainditzen duten udalerririk 74 dira, eta muturreko kasuak daude, hala nola Harana, Añana eta Lagran, 5 eta 1 arteko erlazioarekin. Kontrako aldean, zenbait udalerririk, hala nola Irurak eta Baliarrainek, 0 eta 15 urte bitarteko 2 gazte baino gehiago dituzte 65 urte edo gehiagoko pertsona bakoitzeko.

Udalerririk txikietan gertatzen dira muturreko egoerak biztanleriaren adinaren arabera banaketan, batez ere tamaina txikia dutelako eta edozein fenomeno demografikok, bereziki migrazioak, banaketa hori aldatzen duelako.

**Euskal AEko biztanleak, lurralde eremuen arabera, adin talde handiei jarraiki.
 2021/01/01**

	Guztira	0 - 19		20 - 64		>= 65	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Euskal AE	2.193.199	399.734	18,2	1.289.412	58,8	504.053	23,0
Lurralde historikoak							
Araba/Álava	330.189	63.732	19,3	195.089	59,1	71.368	21,6
Bizkaia	1.144.123	199.653	17,5	676.689	59,1	267.781	23,4
Gipuzkoa	718.887	136.349	19,0	417.634	58,1	164.904	22,9
Hiriburuak							
Bilbao	342.662	54.791	16,0	204.165	59,6	83.706	24,4
Donostia / San Sebastián	182.088	30.664	16,8	105.719	58,1	45.705	25,1
Vitoria-Gasteiz	247.833	47.853	19,3	146.020	58,9	53.960	21,8
Eskualdeak							
Añana	6.267	1.031	16,5	3.840	61,3	1.396	22,3
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	11.697	2.380	20,3	6.886	58,9	2.431	20,8
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	34.454	6.402	18,6	19.976	58,0	8.076	23,4
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	265.498	51.657	19,5	156.975	59,1	56.866	21,4
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	3.180	490	15,4	1.857	58,4	833	26,2
Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión	24.136	4.766	19,7	14.302	59,3	5.068	21,0
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	77.536	14.428	18,6	45.281	58,4	17.827	23,0
Bilbo Handia / Gran Bilbao	857.176	144.311	16,8	506.516	59,1	206.349	24,1
Debabarrena / Bajo Deba	62.642	11.792	18,8	35.760	57,1	15.090	24,1
Debagoiena / Alto Deba	55.170	10.557	19,1	31.405	56,9	13.208	23,9
Donostialdea	328.961	58.703	17,8	192.467	58,5	77.791	23,6
Durungaldea / Duranguesado	99.559	19.317	19,4	59.068	59,3	21.174	21,3
Enkartzioak / Encartaciones	32.110	5.760	17,9	19.123	59,6	7.227	22,5
Gernika-Bermeo	46.172	8.498	18,4	26.680	57,8	10.994	23,8
Goierrri	68.284	14.133	20,7	39.087	57,2	15.064	22,1
Gorbeialdea / Estribaciones del Gorbea	9.093	1.772	19,5	5.555	61,1	1.766	19,4
Markina-Ondarroa	26.048	4.626	17,8	15.058	57,8	6.364	24,4
Plentzia-Mungia	58.922	12.375	21,0	35.942	61,0	10.605	18,0
Tolosaldea	49.543	10.472	21,1	28.650	57,8	10.421	21,0
Urola Kosta	76.751	16.264	21,2	44.984	58,6	15.503	20,2

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak

20 urtetik beherako biztanleria % 0,2 baino ez da hazi bost urte horietan, biztanleria osoaren igoeraren (% 0,8) azpitik. Proportzioari dagokionez, Euskal AEko biztanleria osoaren % 18,2 da, 2016an baino hamarren bat gutxiago. Lurralde historikoetan ere ez da aldaketa esanguratsurik izan, horien artean aldeak dauden arren. Araban eta Gipuzkoan biztanleen % 19 inguru dira 20 urtetik beherakoak, eta Bizkaian, berriz, % 17,5. Eskualdeen arabera, Arabako Mendialdea eta Arabako Kantaurialdea izan dira azken bost urteotan gazteen hazkunde handiena izan dutenak: % 12,1 eta % 3,5, hurrenez hurren. 20 urtetik beherako biztanle gehien dituzten eskualdeak Urola Kosta, Tolosaldea eta Plentzia-Mungia dira, guztiak ere % 21aren inguruan.

20 eta 64 urte bitarteko biztanleen proportzioak, lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren gehiengoak, pisua galdu du 2016 eta 2021 artean, % 60tik % 58,8ra jaitsi baita. Lurraldeka, Bizkaia galdu du gehien (% 1,8), eta ondoren Gipuzkoak eta Arabak (% 0,9 eta % 0,6, hurrenez hurren). 2021ean, Araban eta Bizkaian lan egiteko adinean dauden biztanleen ehuneko bera dago, % 59,1, eta, ondoren Gipuzkoa dator, % 58,1arekin.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tf: 945 01 75 62